


Gogoratu


- **Zirkunferentzia** lerro makur eta itxi bat da; **zirkulua**, aldiz, zirkunferentzia batek mugatutako irudi laua.
- Hauek dira zirkuluen eta zirkunferentzien elementuak: **zentroa**, **erradioa**, **diametroa**, **korda** eta **arkua**.



1. Osatu.

- _____ zirkunferentziako edozein puntu zentroarekin lotzen duen zuzenkia da.
- _____ zirkunferentziako edozein puntutatik distantzia berera dagoen puntua da.
- _____ zirkunferentziako bi puntu lotzen dituen zuzenkia da.
- _____ bi punturen arteko zirkunferentzia zatia da.
- _____ zentrotik pasatu eta zirkunferentziako bi puntu lotzen dituen zuzenkia da.

2. Begiratu eta osatu.



- M puntua zirkunferentziaren _____ da.
- AD zuzenkia zirkunferentziaren _____ bat da.
- MB zuzenkia zirkunferentziaren _____ bat da.
- EC zuzenkia zirkunferentziaren _____ bat da.